

Judimendi auzoko sareen berrikuntza orokorra

AMVISAK Judimendi auzoko hornidura eta saneamendu sarearen berrikuntza orokorrari ekingo dio, eta hiru urtez luzatuko da, hainbat fasetan.

Jarduera hiriko fibrozementuzko hodi guztiak material iraunkor eta jasangarriagoz egindako beste batzuekin ordezten joateko planaren zati da. Saneamenduari dagokionez, Herrandarren kalearen azpitik doan kolektorearen ahalmen hidraulikoa hobetzeko behar espezifikoa ere erantzuten dio.


Obrek sortzen dituzten eragozpenak saihesteko, **ahal den neurrian, zangak ireki gabeko teknologiak erabiliko** dira. Teknologia horiek eraso putzuak irekitzea besterik ez dute behar, horietatik hodi berriak progresiboki instalatzeko, harrera putzuetara iritsi arte.

Horniduran, lan hauek sartzen dira: fundizio hariorreko edo polietileno-zko hodiak jartzea, kutxatila egitea balbulak sartzeko, harguneak, sute ahoak, kontagailuak, hustubideak, ureztatzeko ahoak eta hodi orokorretar-

rako konexioak. Jarduketak aldi berean egingo dira, baina **ur hornidura beti bermatuko da, polietileno-zko behin-behineko hodien bidez.**

Saneamendu sarea mahukako saneamendu izeneko sistema berrituko da. Sistema horren bitartez, hodi berria lehendik dauden hormigoizko kolektoreen barruan sartuko da, kolektore horiek aldeztu aurretik berrikusi eta gero, jarduketa bideragarria dela ziurtatzeko. Kolektoreen egoeratik edo trazadura aldatu delako sistema hori aplikatu ezin denean, zangak irekiko dira. Harguneak eta hustubideak biltzeko behar diren putzuak eta kutxatila ere berritu edo eraikiko dira.


Obra osoaren kostua 5,4 milioi eurokoa izango da (BEZik gabe).



Aurrera doa fakturazio elektronikoa

AMVISAn erabaki dugu fakturen eta paperezko beste komunikazio batzuen bidalketa nabarmen murriztea, gure ingurumen konpromisoaren zati gisa. Neurriak oso erantzun positiboa jaso zuen, informazio orriaren bidez fakturazio elektronikora igarotzeko egin genuen lehen gonbidapenaren ondoren, eta zerbitzu horretako alden kopurua %25 handitu zen. Eskerrik asko denoi zuen laguntzagatik!

Fakturazio elektronikoa duten kontratuak azken urtean



Gure helburua mantentzen da; beraz, **interesa duten pertsona guztiak faktura posta elektronikoz jasotzera animatzen jarraitzen dugu.** Prozedura gogorarazten dugu:

- 1** Bidali **mezu elektronikoa bat** amvisa@vitoria-gasteiz.org helbidera, gaiari adieraziz: **Fakturazio elektronikoa eskaera.**
- 2** Mezuaren bidez jakinarazi **faktura posta elektronikoko zein helbidera jaso nahi den.** Zehaztu eskaerak aipatzen duen kontratua edo hornidura puntua (etxe helbidea).
- 3** Amaitzeko, **NANaren kopia bat erantsi behar da, identifikatzeko.**

28 zuhaitz behar dira faktura eta informazio orri bakoitzaren bidalketarako 1.900 kg paper ekoizteko. Ekidin dezakegu.

Kontzientzia-ikastetxeetan

Kutsatzaile Emergente Kezkagarriak buruz kontzientziatzeko ekintzek izan dute harrera onak beste ikastetxe batzuen interesa piztu du 2021-2022 ikasturterako. **Egibideri San Viator ikastetxea** gehitu zaio, eta EHUn partaidetza lotzen ari da, Ingurumen Zientzien Lizentziaturaren eta Elikagaien Kalitate eta Segurtasun Masterraren bitartez.

Jarduerak, helburuen arabera, DBHko, Batxilergoko eta LHko ikasleei zuzenduta daude, eta ikasturteko eskola edukiaren parte izango dira.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hauxe da helbidea:

info@amvisa-futura.org

